



ASTEARTEA

2021/12/28
9. urtea, 1.528. zenbakia
107.6 fm

Ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 83 €

Altunak eta Jakak irabazi egin dute

Lehen itzuliko azken jardunaldian bi partida jokatu dituzte Beotibarren // 6



Asteazkenean egin zuten Kirol Gala Tolosako Leidor aretoan; irudian, saria jaso zuten kirolariak. IMANOL GARCIA LANDA

Irati Lakunzak jaso du kirolari onenaren saria

Kirolarien emaitza nabarmenenak saritu ditu Tolosako Udalak Kirol Galan; Lakunza hegats igerilaria izan da aipagarriena emakumeetan, eta Unai Saralegi eta Unai Regillaga judokak gizonezkoetan // 7

Tolosako Udalak 34,5 milio euroko aurrekontua onartu du

Iazkoa baino %28 handiagoa da, «inoizko indartsuena»; EH Bilduk dio aurrekontuak ez dituela herritarren beharrak asetzen // 2

Euskal presoen «salbuespen egoera» salatzeke deialdia

Aduna, Alkiza, Amasa-Villabona, Asteasu eta Zizurkilgo udalek presoen aldeko manifestazio isila deitu dute ostiral arratsalderako // 4



GABONETAKO EKINTZAK

Abenduak 27, 28, 29, 30
Irudimen eta arte tailerrak • Munduko jolasak
Zirko tailerra • Ipuin kontalariak



Informazio gehiago:
@oriamerkatarielkartea
@oriamerkatarielkartea



AMASA-VILLABONA
Villabonako Udalak





Tolosako udal gobernuak, abenduko osoko bilkuran 2022ko aurrekontu proiektuaren aldeko botoa eman zuen unea. TOLOSako UDALA

2022rako aurrekontua onartu du Tolosako Udalak

Azken osoko bilkuran hartu dute erabakia, udal gobernuaren aldeko botoekin; oposizioak, bere proposamen batzuk onartu dituzten arren, aurka bozkatu du

Josu Artutxa Dorronsoro

Tolosako Udalak 34,5 milioi euroko aurrekontua kudeatuko du datorren urtean; aurtengoarekin alderatuta, %28 handiagoa izango da, 7,5 milioi euro gehiago. EAJ eta PSE-EE alderdien aldeko botoekin eta EH Bilduren aurkako botoekin onartu da. Begoña Tolosa ogasun zinegotziak azaldu duenez, «inoizko aurrekonturik indartsuena da, Tolosa berriindartu, eraldatu eta hobetuko duten proiektuak aurrera eramateko». EH Bilduren ustez, aurrekontuak ez ditu tolosarren beharrik asetzen; «guk osatuko genukeen aurrekontutik urrun gaude, gizarte eredu desberdina babesten dutelako».

Udal aurrekontu osoaren %41 udal zerbitzuetara bideratuko dutela aurreratu du Tolosak. 14,2 milioi euro erabiliko dituzte zerbitzuen eskaintza hobetu eta indartzeko, adibidez, gizarte zerbi-

tzen alorrean. «Herritarrei eskainitako zerbitzuak hobetu eta indartuko ditugu», esan du zinegotziak. Herritarrei «kalitatezko arreta bermatzeko», aurrekontuaren %32 (11 milioi euro) giza baliabideetara bideratuko da. Gainerako %19 (6,6 milioi euro), berriz, inbertsioetara, aurreikusitako proiektuak garatzeko.

Era berean, diru laguntza guztiak mantendu, eta horietako batzuk indartu egingo direla aurreratu du zinegotziak: besteak beste, Eskola Kirola egitasmoan, 15.000 euro gehiago txertatuko dira; herriko ikastetxei bideratutako laguntzan, 12.000 euro; familiei ematen zaizkien laguntzetan, 10.000 euro gehiago; eta Emakumeen Etxean jarduerak antolatzeko, 8.000 euro gehiago.

Ogasun zinegotziak nabarmendu duenez, «udal gobernuak ezarritako lehentasunek aurrekontuetan dute isla». Hori dela eta, Gizarte Zerbitzuen alorrak «pisu handia» izango duela esan du, 3 milioi euro baino gehiagoko aurrekontuarekin. «Herritarren ongizatea eta zaintza erdigunean jartzen jarraituko dugu», gaineratu du.

Garapen ekonomikoa sustatu eta hiri ekonomia babesteko, mi-

lio bat euro bideratuko ditu udalak. Kulturaren sustapenerako, berriz, ohiko jarduerak berreskuratu eta iaz martxan jarritako *ToLoFolk* eta *Kultura Plazara* jaialdiak mantentzeko, hiru milioi euro bideratuko ditu. Azkenik, herri jasangarriago baten alde pausoak ematen jarraitzeko, 2,7 milioi euro bideratuko ditu.

INBERTSIOEN GARRANTZIA

Zinegotziak aitortu duenez, inbertsioen atalak «garrantzia berezia» izango du 2022an, «Tolosan parte hartze prozesuan herritarrek proposatu eta udalak aurreikusitako proiektu eta egitasmoak aurrera eramateko», 6,6 milioi euro izango dituztelako. Honako hauek dira 2022rako aurreikusitako inbertsio nagusiak: Zumarditxikirako, 500.000 euro; Emakumeen Etxea proiekturako, 345.000 euro; Usabal kirol eremuko hirugarren fasarako, 960.000 euro; zezen plazaren laugarren fasarako, 820.000 euro; eta Gorriti plazako lanetarako, 544.000 euro.

Udal gobernuak aurkeztutako aurrekontu proiektuan zuzenketak sartu dira, Tolosako EH Bildu alderdiak egindako proposamenen harira. «Balioan jartzen

dugu gobernuarekin lortutako akordio minimoak, tolosarron bizi baldintzak hobetzea baita gure helburua, eta konpromiso hauekin, neurri txiki batean, hori lortu dugu», azaldu dute EH Bildutik. Bada, udalbatza osatzen duten hiru alderdi politikoaren artean ondorengo proposamenak adostu dira: familiei bideratutako diru laguntzak 10.000 euro handitzea, etxebizitza hutsak birgaitzeko eta alokairu merkatura ateratzeko diru laguntza partida 20.000 eurotan areagotzea, San Esteban auzoko beharrei aurre egiteko partidari 100.000 euro gehitzea, Arkauteko eraikina eraberritzeko proiekturako 50.000 euro jartzea, eta Trianguloa plazako zorua berritzeko beste 50.000 euro jartzea.

BESTELAKO GAIAK

Azaroko osoko bilkuran, Mugi sisteman sartzeko prozedura abiaraztea onartu zuen udalak. Orain, egungo prezio publikoak bertan behera utzi eta Garraioaren Lurralde Agintaritzaren tarifak aplikatzea onartu du, Gipuzkoa osoan prezioak berdinak izan daitezen. «Prezioak progresiboak izango dira, geroz eta gehiago erabili, gutxiago ordain-

tzeko», azaldu du Patxi Amantegi ingurumen zinegotziak. Puntu honetan, EH Bilduk zerbitzuak «hobetu, mantendu eta areagotzea» pausoak eman behar direla adierazi du, «Lurralde-busen eman diren murritzaketak eta Renferen aldiriko trenen egoera jasangaitza» salatuz.

Tolosako etxez etxeko laguntza zerbitzu-kontratuaren espedienteak ere onartu zuten. Zerbitzuan parte hartzen duten herritarrek asebetetze inkesta egin ondoren, zerbitzu berria kontratatzeko baldintza-pleguak garatu dira, eta lizitazioari hasiera emango die orain. Bi urterako egingo da, beste hiru urtez luza- tze-ko aukerarekin, eta 6,6 milioi euroko balio zenbatetsiarekin.

Bestetik, Kontratuaren inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak emandako ebazpenaren berri ere eman dute. Agisas elkartek Tolosan arlo sozio-hezitzailean eta psikosozialean esku hartzeko zerbitzua kontratatze-ko abiatutako lizitazioaren aurkako errekurtsioa jarri ondoren, lizitazio-prozedura bertan behe-

Hamabi urteren ondoren, Nerea Letamendia EAJ-ko zinegotziak kargua uztea erabaki du

ra utzi du udalak. Indarrean da- goen lizitazioa luzatuko dute, berria martxan jarri bitartean.

Halaber, terrazen azalera handitzeko aldi baterako emandako baimena indarririk gabe uztea eta haren eragina urtarilaren 10etik aurrera amaitutzat ematea ere onartu dute. «Egun indarrean dauden osasun agindu eta neurriak jarraituta, metro eta erdiko tarteak mantentzea gomendioa da, eta ez bete beharreko arau bat», azaldu du Nerea Letamendia Merkataritza, Turismoa eta Azokak saileko zinegotziak. Gabonen ondoren, ostalariekin hala adostuta, jatorrizko espaziora itzuliko dira terrazak. «Dagoeneko ordenantza berria lantzen ari gara, eta jarraipena izango du 2022an», gaineratu du.

Hain justu, Letamendiak berak zinegotzi kargua uztea erabaki duela jakinarazi du bilkuran. «Denetik bizitzea egokitu zait hamabi urte hauetan, eta ohorea izan da Tolosako EAJ-ko zinegotzi izatea». Eskerrak eman dizkie alboan izan dituen senide, lankide eta Tolosako hiri ekonomia osatzen duen komunitateari. Amaitzeko, udal biztanleen kopuru ofizialaren berri eman zuten; 2021eko urtarilaren leian, 19.795 biztanle zituen Tolosak.

IRAGARKI LABURRAK

Salgai

Txerriak. Apotea, zerramak eta sei hilabete inguruko txerrikumeak salgai. Interesatuak deitu 607 668 603 (Joxe Kruz) telefono zenbakira.

✉ GUTUNAK

Aiztondoko Eskola Publikoaren Sarea, proiektu bakarra

Euskal Herriko Eskola Publikoaren Sareak Aiztondoko bailara osoa zeharkatzen du: Adunako Herri Eskola, Alkizako Herri Eskola, Amasa-Villabonako Fleming Herri Eskola, Asteasuko Pello Errota Herri Ikastetxea, Larraulgo Herri Eskola, Zizurkilgo Otaño Herri Eskola eta San Millan Eskola. Haur eta Lehen Hezkuntzako eskola guzti hauek jarraipena dute Amasa-Villabonako Erniobea BHI Institutuan.

Horrela, Aiztondoko bailaran Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza sare publiko osoa dugu. Urteak eta urteak daramatzagu Aiztondoko bailarako zuzendariak koordinazio bilerak hilabetero eginez, Lasarteko Berritzeguneko zuzendariak koordinatzen gaituelarik.

Bailaran eskola tipologia desberdinak egonik, arazo eta interes komun asko ditugu, eta elkarlanean aritzea oso onuragarri da guztiontzat. Bilerak eskola desberdinetan egiten ditugu, txandaka, eta helburu nagusiak Aiztondoko Eskola Publiko Sare bakarria indartzea, elkarlana sistematizatzea eta eskolen arteko

harremanak sendotzea dira, besteak beste.

Aiztondoko bailarako eskola publikoek komunean dituzten gai asko eztabaidatzen dira: Lehen hezkuntzatik DBHrako iragaitza; Aiztondoko topaketak; Eskola bakoitzeko esperientziak eta proiektuak konpartitzea; Metodologiaren inguruko hausnarketa; Ikasleen ebaluazio sistematik eta tresnak; Eskolako ohiko funtzionamendua: klaustroa, taldeko dinamikak eta abar; Bailarako eskolen bisita gidatua; Zuzendaritzaren esku-hartzea eskolan; Hezkuntza komunitatearen harremanak; Aurrematrikulen kanpainak; Lasarteko Berritzegunearen esku-hartzea; Ekintza komunak; Hezkuntza legedia eta arautegia aztertzea; Hezkidetza eta elkarbizitza ekin-tzak finkatzea; Hezkuntza Saileko ikasturteroko deialdiak aztertzea eta prestatzea.

Aiztondoko zuzendarien bilerak Aiztondoko eskola publiko guztietarako onurak ekartzen dituen funtsezko topagune dira. Azken finean, proiektu bakarria osatzen dugu: Aiztondoko Eskola Publikoaren Sarea.

**Onintza Elduairen
(Asteasuko Pello Errota Herri Eskola)
eta Aiztondoko beste zazpi eskola
publikoetako zuzendariak**

Azken egunetan 637 lagun kutsatu dira Tolosaldean

Erredakzioa

Osasun Sailak eguneratu ditu COVID-19ari lotutako datuak eta horien arabera 637 positibo atzeman dituzte eskualdean azken lau egunetan. Tolosan 276 positibo egon dira abenduaren 23tik 26ra, 89 Amasa-Villabonan, 43 Zizurkilan, 40 Ibarran, 28 Iruran, 26 Anoetan, 21 Amezetan, 17 Alkizan eta Asteasun, 15 Berastegin, 12 Bidania-Goiatzen, 10 Alegian, 7 Lizartzan, 6na Berrobin eta Abaltzisketan, 4 Ikaztegieta, 5 Gaztelun, 4 Albizturren, 3 Altzon, bina Adunan eta Larraulen, eta bana Baliarrain, Belauntzan, Hernialde eta Elduainen. Gipuzkoako herri guztiak daude eremu gorrian, Oresa izan ezik. Osasun eremuei dagokienez Tolosaldeko ESia go-

rrian dago 2.834ko intzidentzia tasarekin.

LABIREN BILERA, GAUR

Iñigo Urkulluk gaurko deitu du Labi batzordea, neurriak zorroztea aztertzeko. Zehazki tabernak 21:00etan itxi nahi ditu Eusko Jaurlaritzak abenduaren 31n eta urtarrilaren 1ean, 5ean eta 6an; eta barnealdean elkar daitezkeen jende multzoak hamar lagunera mugatu. Beste neurri batzuk ere ezarri nahi ditu, gutxienez, urtarrilaren 31ra arte: gizarte eta kultur jarduerak 01:00ak baino lehen amaitzea, barnealdean edukiera %60ra mugatzea, tabernetan tente kontsumitzea debekatzea, kirola gehienez ere hamar lagunekiko taldeetan egitea, edota aldagelen edukiera %50ekoa izatea.

Tomas Hernandez Mendizabal margolari eta kartelgilea hil da

81 urterekin hil da; Euskal Herriko ospakizun, emanaldi eta topaketa garrantzitsuenetariko batzuei jarri zien azala, besteak beste, 53 urtez jarraian, Tolosako Inauteriei

Erredakzioa Tolosa

Tomas Hernandez Mendizabal pintore, eskultore eta kartelgilea hil da, 81 urterekin. Askotariko diziplinetan eginiko lanengatik da ezaguna, baina bereziki kartelgintzaren munduan egin dituen lan ugariengatik lortu zuen sona sortzaileak. Euskal Herriko ospakizun, emanaldi eta hitzordu garrantzitsuenetik jarri zien azala. Horien artean dira, adibidez, Tolosako Inauteriak, Donostiako Inauteriak edota Donostiako Jazzaldia.

Antxon Elozegi Tolosako Eki-men eta Turismo Zentroko sortzaileak animatu zuen Tolosako Inauterietako kartelak egitera eta ordutik, segidan, 53 urteetan egin ditu. Tolosako Udalak doluminak



Hernandez Mendizabal 2018ko urtarrilean Tolosan egin zioten omenaldian. I.U.

eman dizkie Hernandezen senide guztiei eta esan du bere izena memorian betirako geldidarin egingo duela.

«Tomasen mailako artista baten lanak prestigioa eta ikusgarri-

tasuna eman dio hasiera-hasieratik Tolosako Inauterien irudiari, eta ezinbesteko laguntza izan da Tolosatik kanpo inauterien izen ona eta erakargarritasuna zabal-tzeko», esan du Tolosako Udalak.

2022ko egutegirako 64 argazki jaso ditu Irura Bizik

Erredakzioa Irura

Irura Bizik sari banaketa ekitaldia egin zuen joan den ostegunean. Batetik, 2022ko egutegirako argazki lehiaketan parte hartu zutenen artean sariak banatu zituen, eta bestetik, mendi erronkako irabazleen berri eman zuen.

Datorren urteko egutegia osatzeko, aurtan, 24 lagunek 64 argazki aurkeztu dituzte Irura Bizik antolatutako argazki lehiaketara. Hilabete bakoitzeko argazki bat aukeratzeaz gain, epaimahaiak azalerako 3 argazki hautatu ditu eta ondoren herritarrek bozketa bidez aukeratu dute egutegiko azala izango dena. Guztira, 110 lagunek hartu dute parte bozketan, eta Matixa Oruesagastiren argazkia izan da bozkatuena. Hortaz, 12 argazkien eta azaleko argazkien egileek 30 euroko bonu bana jaso dute Irurako denda edo ta-



Irura Bizi elkarteak sari banaketa ekitaldia egin zuen ostegunean. ATARIA

berna batean gastatzeko. Horrekin batera, 110 bozkatzaileen artean ere zozketa egin dute eta Idoia Garaialdek irabazi du saria. Honek ere 30 euroko bonu bat irabazi du.

Bestalde, I. Irura Bizi mendi erronka izan dute martxan urrian eta azaroan. 14 urtetik gorakoek Tolosaldeko 5 mendi ze-

hatz igo eta argazkia bidali behar izan dute. Helduen artean, Oneka Blancok lortu du erronka gaitzeta. 14 urtetik beherakoek 3 mendi egin behar zituzten eta 4 lagunek hartu dute parte. Irabazleak Oier Garmendia izan da. Mendi erronkako sarituek 50 euroko bonu bana jaso dute Villabonako kirol denda batean gastatzeko.

Aiztondoko euskal preso guztiak Euskal Herritik kanpo daude

Aduna, Alkiza, Amasa-Villabona, Asteasu eta Zizurkilgo udal ordezkariak manifestaziora deitu dituzte herritarrek 'Euskal presoek eskubideak errespetatu salbuespen legedia indargabetu' lelopean

Eneritz Maiz Etxarri

Aiztondo bailarako Aduna, Alkiza, Amasa-Villabona, Asteasu eta Zizurkilgo udal ordezkariak egun bereziak iritsi direla eta, urtero moduan, euskal presoak go-goan dituztela adierazi dute. Elkartasuna agertu asmoz, hilaren 31rako, ostiralerako, manifestazio isila deitu dute. 19:00etan Zizurkilgo Joxe Arregi plazatik abiatuko da manifestazio isila, eta Villabonako Errebote plazan amaituko dute. Giza eskubideak, elkarbizitza eta bakea gogoratziz, herritarrei dei egin diete, *Euskal presoek eskubideak errespetatu salbuespen legedia indargabetu* lelopean kalera atera daitezen.

Aiztondoko udal ordezkariak adierazi dute, euskal presoek pairatzen duten salbuespenezko kartzela politika gaitzesten dutela, eta Espainiako eta Frantziako estatuei presoek eskubideak bermatzeko beharrezkoak diren neurriak har ditzatela exijitu diete.

Aitortu dute azken urtean aurrera urrats batzuk eman direla eta positiboki baloratzen dituztela; «baina, ez dezagun ahaztu oraindik 104 preso daudela Euskal Herritik kanpo, tartean, Aiztondoko preso guztiak, eta ondorioz haien eta haien familien eskubideak urratzen jarraitzen dutela». Horrez gain, gogoratu dute euskal presoek %94k bigarren graduan jarraitzen dutela,



Asteasu, Alkiza, Zizurkil, Aduna eta Amasa-Villabonako udal ordezkariak manifestaziorako deia egiten, Zizurkilen. E. MAIZ

eta hamar preso baino ez direla hirugarren graduan daudenak. «Egoera horretan 70 preso egon beharko lirake, eta gainera horietatik 52k eskubidea dute jada baldintzapeko askatasunean egoteko».

Bestalde, preso horien %90ak espetxe baimenak izateko aukera izan beharko lukeela diote: «Horretarako zigorraren dagoen zatia beteta dute, baina ez zaie eskubide hori aplikatzen».

MANIFESTAZIO ISILA

Zizurkil-Villabona

19:00. Zizurkilgo Joxe Arregi plazatik abiatuko da manifestazio isila *Euskal presoek eskubideak errespetatu salbuespen legedia indargabetu* lelopean, eta Villabonako Errebote plazan bukatuko da.

Guzti horri udal ordezkariak «justiziaren jarrera atzerakoia» batzen diote: «Espetxeetako juntatik gradu progresioren bat edo espetxe baimenen bat lortzen denean, Auzitegi Nazionalak errekurritu, blokeatu eta geldiarazi egiten ditu erabaki horiek».

<<OINARRIZKO HIRU ESKAERA>>

Manifestazio isilerako deia eginenez, hiru puntu nabarmendu dituzte Aiztondo bailarako bost udal ordezkariak. Lehenik, euskal presoek aplikatzen zaizkien salbuespenezko kartzela neurriekin amaitzea eta legedia arrunta aplikatzea eskatu dute. «Beharrezkoa da presoek bidegabeko zigor erantsia ezartzen dieten neurriekin behin betiko amaitzea, eta euskal presoek pre-


so guztiek dituzten eskubide berberak aitortzea, hau da, gradu progresiboak, espetxe baimenak, baldintzapeko askatasunak,...».

Bestetik, gaixotasun larri edota sendaezinak dituzten presoek kaleratzea nahi dute, eta gaixotasun sendaezinak dituzten presoek espetxetik irten eta etxetik hurbil dagoen erietxe batean artatuak izateko «eskubide osoa» dutela aldarrikatu dute. «Hori, Espainiako legedian bertan jasota dago», zehaztu dute. Hori horrela, eskubide hori errespetatzea eta gaixorik larri dauden presoek berehalako kaleratzea, exijitu dute.

Azkenik, 70 urtetik gora dituzten presoak kaleratzea eskatu dute Aiztondoko udal ordezkariak.

gorriti | martínez

San Frantzisko pasealekua 14, Tolosa
Tel: 943 650 192
www.gorritimartinez.com





A. IMAZ

«Burgesia eredu totalitario baterantz doa»

ALAITZ ITURZAETA ETA JATSU ORMAZABAL KONTSEILU SOZIALISTAKO KIDEAK

'Biolentzia kapitalistari, langile batasuna' lelopean manifestazioa deitu dute ostegun honetarako, 19:00etan, Tolosan

Asier Imaz

Tolosaldeko Kontseilu Sozialistako kideak dira Ormazabal eta Iturzaeta. Abenduaren 30eko mobilizaziora deitu dute; Trianguloatik aterako da, 19:00etan. **Zergatik antolatu duzue manifestazioa?**

Alaitz Iturzaeta: Langileok urte honen balantze negatiboa egiten dugu. Biolentziaz betetako errealitate sozial batean gaude, eta ondorio zuzenak langileok pai-

ratzen ditugu. Biolentzia hori salatu eta gaitzesteko helburuarekin deitzen dugu osteguneko mobilizazioa.

Hiru biolentzia kasu azpimarratu dituzue. Zeintzuk?

A. I.: Alde batetik, urte honetan eman diren 61 lan erailketa salatu nahi ditugu. Bestetik, indarkeria matxistaren ondoriozko bost emakumeren erailketak gaitzetsi nahiko genituzke.

Jatsu Ormazabal: Hirugarrenik, ipar eta hego Euskal Herria

zeharkatzen zazpi pertsona hil edo erail dituztela salatu nahi dugu.

Eredu bakarrak ez direla ere esan duzue.

J. O.: Zeharka ematen diren beste hainbat biolentzia mota daude. Hauek ere ezin dira ahaztu: etxegabetzeak, buruko gaixotasunak, suizidioak... Nahikoa motibo daudela uste dugu guzti horri aurre egiteko eta kalean gizarite kapitalistaren aurkako borroka aldarrikatzeko. Aldi berean, sozialismoaren aldeko aldarria zabaldu nahi dugu.

Indarkeria mota hauen aurrean, zein da zuen irakurketa?

A. I.: Biolentzia mota hauek kapitalismoaren estrukturan daude. Kapitalismoa dominazio harreman batean oinarritzen den gizartea da. Burgesiak irabaziak metatzeko langileria soldatapeko lanera kondenatzen du. Hortik abiatuta, beste esfera guztiak barne hartzen eta kontrolatzen ditu burgesiak; dominazio hau ezartzeko eta betikotzeko. Gertaera historikoek erakutsi digute hori erreforma huts batekin ezin dela aldatu. Indarrean dagoen sistema kapitalista eta bere biolentzia guztia ezin da gainditu erreforma bitartez.

J. O.: Krisi garai honetan langileen bizitza nola okertzen ari den bizitzen ari gara: langabeziaren, aldi baterako lanaren eta pobrezia-oren orokortzea nabarmena da. Egoera horri eusteko helburuarekin, burgesia eredu totalitario baterantz doa. COVID ziurtagiriaz gain, pandemian hartu dituzten neurriak. Erreakzionatzen ez duen langileria bat eraiki nahi dute. Horregatik, garrantzitsua da kalera ateratzea egoera guzti honen aurrean.



GKS-k elkarretaratzea egin zuen ostiralean Tolosako Trianguloan. A. IMAZ

«Herritarren bizi kalitateak behera egin du nabarmen»

Gazte Koordinadora Sozialistak manifestaziorako deialdia zabaldu du

A. Imaz Tolosa

Enpresari handiek eta politikari profesionalek pandemiari eman dioten erantzun autoritarioari aurre egin! lelopean mobilizazioa egin zuen Tolosaldeko Gazte Koordinadora Sozialistak Tolosan, joan den ostiralean. «Aire librean musukoaren derrigorrezko erabilera ezartzeak ez dauka oinarri epidemiologikorik, oinarri autoritarioa baizik», azaldu zuten elkarretaratzearen amaieran. Horrez gain, «izurriteari aurre egiteko militarrek mobilizatzeak, osasunaren izenean egoera militarizatzen du eta autoritarismoa normalizatu» gaineratu zuten. COVID ziurtagiriarekin ere ez ziren ados agertu, GKS-ren esanetan ez baita «osa-

sun aterabidea, kontrol soziala areagotzen duen neurria baizik».

Duela bi urtetik hona herritarren bizi kalitateak behera «nabarmen» egin duela esan zuten: «Ziurgabetasuna, osasun hondamendia eta oinarritzotzat genituen eskubideen urraketak eguneroko bizitzaren parte bilakatu dira». Egoera horri aurre ez baldin bazaio egiten, geratzeko etorri delakoan daude.

BILBON, MANIFESTAZIOA

Ostiraleko mobilizazioa beste deialdi bat egiteko ere probestu zuten Tolosaldeko Gazte Koordinadora Sozialistako kideek. Ur-tarrilaren 29an, 17:00etan, Iruñean eta Bilbon manifestazioak egingo dira. Eskualdetik Bilborako deialdia egin zuten.



ANOETA – 28 ETXEBIZITZA
2 ETA 3 LOGELA, GARAJE ETA TRASTELEKUAK
TERRAZA PAREGABEAK ETA MENDIETARA BISTAK

**CONSTRUCCIONES
ABURUZA, S.L.**

Informazioa:
KALE BERRIA 48, BEHEA
20.150 VILLABONA

www.aburuza.com/iturtxulo
komertziala@aburuza.com
943 69 02 97/607 445 484

Altuna III.ak eta Jakak puntu bana lortu dute asteburuan

Eskualdeko pilotariak elkarren aurka aritu dira: Jaka-Mariezkurrena II.ak 20-22 irabazi dio Ezkurdia-Tolosari eta Altuna III.a-Martijak 22-19 Peña II-Albisuri

Erredakzioa

Binakako Pilota Txapelketako seigarren jardunaldia jokatu da asteburuan, eta eskualdeko lau pilotariak bi partidetan neurtu dituzte indarrak, sailkapenean puntuak gehitzeko asmoz. Altuna III.a amezketarrak Martijarekin batera hirugarren puntua eskuratu du, Peña II-Albisu bikoaren aurka 22-19 irabazita, eta orain hiru puntu dituzte eta sailkapenean seigarren postuan daude. Peña II.a tolosarra eta Albisu bolada txarrean daude, batez ere emaitzei dagokionez, eta txapelketako lehen jardunaldian irabazi ondoren ez dute beste partidarik irabazi. Puntu bakarrekin zazpigarren postuan daude.

Beste partidari, Jaka lizartzarrentzat eta Mariezkurrena II.arentzat izan zen garaipena, 20-22, Ezkurdia eta Tolosa anoe-tarraren aurka. Jaka-Mariezkurrena II biko, lehen bi jardunaldiak galdu ondoren, pixkana emaitzak lortzen ari da eta asteburuko garaipenarekin hiru puntu dute, sailkapeneko bosgarren postuan kokatuz. Tolosak eta bere aurrelari Ezkurdiak ez diote guztiz neurria hartu txapelketari eta garaipen bakarra lortu dute orain arte, sailkapeneko zortzigarren postuan geratuz.



Jaka sakea ateratzen, aurreko jardunaldian Beotibarren jokaturako partidari. JOSU ARTUTXA

Hurrengo jardunaldian, zazpigarrena, eta beraz, lehen itzuliko azkena, bi partida jokatu dira Tolosako Beotibar pilotalekuan. Lehenengoa etzi, ostegunean, izango da, eta bertan jokatu du Jakak. Mariezkurrena II.a atzelari izan beharrean, bere ordeiz Salaverri II.a ariko da. Jaialdia 16:30ean hasiko da eta bigarren partida izango da Jakarena. Astelehenean, urtarilaren 3an, izango da beste partida Beotibarren. Ezkurdia-Tolosa bikoak aurrean Urrutikoetxea-Aranguren bikoak izango du. 16:30ean hasiko

da jaialdia, eta bigarren partida izango da hori; lehenengoan, Iker Elizegi asteasuarrak jokatu du, eta Bakaikoarekin batera Salaberria-Erostarbe bikotearen aurka jokatu dute.

Larunbatean Altuna III.aren txanda izango da, Martijarekin batera Laso eta Imaz bikoaren aurka jokatu du. Eibarko Aste-lena frontoian jokatu da, eta 17:00etan hasiko den jaialdiaren bigarren partida izango da. Igan-dean jokatu du Peña II.ak, eta Albisurekin batera Irribarria-Re-zusta bikoak izango dute aurkari.

17:00etan hasiko da jaialdia eta bigarrenengoa izango da beraien partida.

IKER ELIZEGI, SENDO

Promozio mailako binakako txapelketan, Iker Elizegi eta Bakaikoa bere aurrelariak beste garaipen bat lortu dute asteburuan, Eiguren V-Untoria bikoaren aurka 22-8 irabaziz. Hori horrela, jokatu dituzten sei partidak irabazi dituzte Bakaikoak eta Elizegik, eta sailkapeneko lehen postua daude, sendotasun handia erakutsiz.

Imanol Rojok Tour de Ski lehiaketa gogorrari ekingo dio gaur

Erredakzioa Tolosa

Alpino Uzturre elkarteko Imanol Rojo iraupen eskiatzaile tolosarra bere bidea egiten ari da otsailen Pekingo Olinpiar Jokoetan egoteko, eta horretarako garrantzia izango du Munduko Kopako baliagarria den Tour de Ski lehiaketa gogorrak. Gaurtik hasita eta urtarilaren 4ra arte, sei probatan parte hartuko du, hiru herrialdetan.

Suitzan hasiko da gaur, Lenzerheiden, eta esprintean skating modalitatean 1,5 kilometroko proba egingo du. Bihar, leku berean, 15 kilometroko proba egingo du klasiko eran. Ostiralean, abenduak 31, Alemaniako Oberstdorfen izango da, 15 kilometroko skating modalitateko proban parte hartzeko. Leku berean, urtarilaren 1ean, esprinteko proba egingo du klasiko eran. Hortik Italiara joango da, Val de Fiemmerera, eta urtarilaren 3an 15 kilometroko klasiko erako proba egingo du. Hurrengo egunean, urtarilaren 4an, 10 kilometroko skating modalitateko proba izango du.

Hirugarren aldiz parte hartuko du Rojok Tour de Ski lehiaketan. Orain dela bi urtekoan, 2019-20 denboraldian, 86 parte hartzaile izan ziren eta 56k osatu zuten. Rojok 37. bukatu zuen. Aurrekoan, 2020-2021 denboraldian, 84 parte hartzaile izan ziren eta 51k amaitu zuten. Tolosarrak 31. bukatu zuen.

70 pilotaritik gora ariko dira topaketan


Erredakzioa

Guztira 70 pilotaritik gora ariko dira lehian XIX. Gabonetako Pilota Topaketan, Intxurre Pilota Elkartek antolatuta. Atzo hasi ziren partidekin, eta aurretik ohiko argazkia atera zuten parte hartzaile guztiek. Aurtengoan aire librean egitea erabaki zen, eta Alegiako kultur eta kirol etxearen sarrera aurrean egin zen argazkia. Ondoren pilotari bakoitzak zegokion frontoira joan zen partidak jokatzerako.

Prebenjaminak Orendainen

ariko dira, benjaminek Alegian jokatu dute, alebinek Altzon eta infantil eta kadete mailakoek Baliarrainen jokatu dute. Antolakuntzatik frontoi irekiak bi-latzen aritu dira partidak jokatzen. Finalak Amezketa izango dira, herriko plazako frontoi irekian, euririk ez badu egiten behintzat. 11:00etan hasiko da jaialdia.

Aurreko urtean ez zen egin topaketa, baina aurtengoan antolakuntzatik aurrera egitea erabaki dute, eskaria jaso dutelako txapelketa egiteko.



XIX. Gabonetako Pilota Topaketan parte hartuko dutenen argazkia, atzo arratsaldean aterata. I.G.L.G

Sari nagusia Irati Lakunza hegats igerilariarentzat izan da

Tolosako Udalak kirolarien emaitza aipagarrienak saritu ditu; emakumezkoetan Irati Lakunza eta gizonezkoetan Unai Saralegi eta Unai Regillaga, nabarmenenak

Imanol Garcia Landa Tolosa

Tolosako Udalak herriko kirolari, kirol talde eta elkarten lana balioan jarri eta izandako lorpenenak aitortzeko, eta kirolak sustatzen dituen balioak gizarteratzeko eta hedatzeko antolatzen du Tolosako Kirol Gala. Absolutu mailan Irati Lakunza hegats igeriketako igerilaria eta Unai Saralegi eta Unai Regillaga judokak izan dira aurten nabarmendu direnak eta sari nagusia Irati Lakunzak jaso du. Etorkizuneko kirolarietan, Alaia Juaristi rolleski eta iraupen eskiaztzaileak eta Unai Zubeldia txirrindulariak izan dira boto gehien jaso dituztenak.

Irati Lakunzak ezin izan zuen iragan asteazkenean egin zen ekitaldian egon, eta bideo bidez mezua bidali zuen. Bere alde «apustua eta bozka» egin duten guztiei eskertu zien, eta «ilusio handia» egiten dion saria dela azaldu zuen. «Jaio eta hazi nai zen herriak nire kirol ibilbidea baloratu eta saritzeak satisfazio handia ematen dit, bai niretzat eta baita nirekin lan egiten duten guztientzat ere», esan zuen. Bestalde, mezua aprobetxatu zuen «hegats igeriketa bezalako kirol txikiei nolabaiteko ikusgarritasuna» emateko: «Bai gaztetxo, bai guraso, bai soinketako irakasleei, bai kirol arloan lan egiten duen jendeari esan animatzeko kirol berriak probatu eta disfrutatzen, Tolosa bezala-



Unai Saralegi eta Irati Lakunza sari baneak jarriz. I.G.L.

ko herri bateko kirolak aberasteko bidea hori delako». Bukatzeko, aitari, amari eta entrenatzaileari zuzendu zitzaion, saria ere beraia dela esanez. Lakunza- ren amak jaso zuen saria.

Bere aldetik, Unai Saralegi eskertu zuen jasotako saria, gogora ekarriz ere Gipuzkoarren Saria jaso berri dutela: «Urte luzea izan da, bidaia asko eta esfortzu asko eginez, eta urtea bukatzeko gipuzkoarren eta tolosarren saria jasotzea ohore bat da». Urtea «ikaragarria» izan dela gaineratu zuen. «Ez dakit hobetuko dugun edo berdindu datozen urteetan, baina saiatuko gara. Espainiako Txapelketa irabazi dugu urtea bukatzeko, sari horiek jasotzea egiten dugun lanaren errekonozimendua da, eta hori ere eskertzen dugu». Regillaga ez zen Leidor aretoan izan.

Izendapen bereziek ere bere lekua izan zuten galan. Horrela, jokabide eredu garriaren izendapena Izaskun eta Arantxa Iparagarre, Kontxi Gonzalez, Maria Jose Martinezek jaso zuten, Mugi Tolosa ekimeneko boluntarioak. Ekitate eta baloreen ikusgarritasuna, Amador Granados eta Ander Albizuk jaso zuten. Babesleen izendapena, CMO Valves enpresarentzat izan zen. Entrenatzaile lanari, Jon Espinak eta Joseba Zubeldiak jaso zuten. Berdintasunaren izendapena, Yolanda Vargasek, Espainiako Txapelketan 100 metro bizkar proba irabazi duen Tolosako lehen emakumea. Azkenik, aipamen berezia jaso zuten Alpino Uzturreko Xanti Saizarrek eta Jon Ander Peña pilotariak, 2021ean txapeladunordea izan dena binakako txapelketan.

KIROLARI SARITUAK

Absolutu maila

Atletismoa. Tolosa CF-ko Paula de Juan, Maialen Muñoz eta Ander Uranga.

Iraupen eskia. Imanol Rojo. Txirrindularitza: Eukene Larrarte eta Tania Calvo.

Gimnastika erritmikoa. Tolosa CF-ko 1. maila nazionalako taldea: Ismene Agirre, Irene Arbeloa, Mara Herrera, Ane Alustiza eta Aitane Goikoetxea.

Bike Trial. Irene Caminos.

Judo (kata modalitate). Unai Saralegi eta Unai Regillaga bikotea.

Hegats igeriketa. Irati Lakunza.

Arrauna. TAK klubeko Tolosaldea trainerua.

Etorkizuneko kirolarien maila

Mendi lasterketak. Ane Iturria eta Irene Iturria.

Rolleski eta iraupen eskia. Alaia Juaristi.

Txirrindularitza. Unai Zubeldia, Ayala Serrano, Arene Perez, Nahia Amondarain eta Garazi Estevez.

Atletismoa. Maria Felisa Okomo, June Sudupe, Mikel Ezkerro eta Ander Martinez de Rituerto.

Eskalada. Aimar Uson.

Igeriketa. Nahia Garrido eta Naia Sarasola.

Judoa. Joseba Regillaga eta Joseba Etxarri bikotea.

Arrauna. Tolosaldea Arraun Klubeko infantil mutilen batela: Iban Arrospide, Urko Iturrioz, Julen Izagirre, Jurgi Plazaola, Eneko Zubia eta Maddi Balerdi (patroia).

XXXIX. Shanti Torneoa abian da Usabal kiroldegian

Atzo hasi ziren ligaxketako partidak eta urtarriaren 5ean jokatu dira izen emateak izan diren hiru mailako finalak

Erredakzioa Tolosa

Aurreko aldian ez zen egin, baina oraingoan aurrera egitea erabaki dute Kirolagunak elkarteak, eta martxan da XXXIX. Shanti Torneoa. Areto futboleko jokatu dute benjamin eta alebin mailakoek Tolosako Usabal kiroldegian. Atzo bertan hasi zizuten partidak eta urtarriaren 5ean izango dira finalak.

Guztira 52 talde animatu dira parte hartzera. Benjamin mutiletan 19 talde, alebin mutiletan 23 talde eta alebin nesketan hamar talde. Benjamin nesken mailan ez da lehiaketarik izango, inork ez duelako izenik eman.

Kirolagunak elkarteak hirugarren aldiz antolatu du torneoa. Ikuslerik ezingo da egon, eta zuzenean elkartearen Youtube-ko kanaletik jarraitu ahalko dira partidak.

Gaurtik ostegunera bitartean ligaxken partidak jokatu dira, 10:00etatik 13:30era eta 15:30etik 19:00etara. Urtarrilaren 3an, goizez, final-laurdenak jokatu dira. Urtarrilaren 4an, goizez finalerdiak, eta arratsalde 3. eta 4. postuak erabakitzen partidak. Urtarrilaren 5ean, 10:30etik aurrera jokatu dira hiru finalak. Ondoren sari banaketa egingo da, eta lehen lau taldeek jasoko dute oroigarria eta torneoan ohitura izaten den errege opila.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu



ASTEARTEA, 2021EKO ABENDUAK 28
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoeta: 687 410 022.
anoeta@ataria.eus
Ibarra: 687 410 118. ibarra@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezera arreta zerbitzua: 943 30 43 46



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta,
Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Olentzero eta Mari Domingi eskualdetik igaro dira, eta
kalejirak nahiz ongiatorriak egin dituzte; hainbat herritan
Gabon kankak abestera ere atera dira herritarrek

Banatu dituzte opariak

Erredakzioa

Tolosaldeko herri guztietatik hutsik egin gabe igaro dira aurren ere Olentzero eta Mari Domingi, eta harrera berezia egin diete herritarrek. Etxeko txikiak irrikaz itxaron dute unea, opariak jasotzeko.

Pertsonaiei ongiatorria egitea- rekin batera, hainbat herritan kantuan ere aritu ziren Gabon egunez. Tolosaren kasuan, Tolosaldea Osasun Publikoaren Aldeko plataformako kideek ekitaldi berezia prestatu zuten. Tolosako udaletxearen aurrean abesti bat bat kantatu zuten, baina letra egokituta. Ondoren, udal ordezkariak gutun bat irakurri zieten, eta udaletxean ikatza utzi zuten agintarientzat.



Ibarran Olentzero eta Mari Domingi gaztetxoak agurtzen. A. IMAZ



Ezkerrean, kantuan atera ziren ikaztegiak. Eskuinean, TOPAko kideak Tolosako udaletxe aurrean. A. IMAZ/E. MAIZ



AGENDA

Deialdiak

Alegia. Gabonetako pilota topaketa, Elorri pilotalekuan, 16:00etan.

Amasa-Villabona. Irudimen eta arte tailerra 11:00etan, erakusketa gelan; zirku tailerra, 16:00etan, kultur etxean; 17:15ean, ipuin kontaketa, Gurea zinean; 18:30ean, munduko jolasak, kultur etxean.

Amezket. Gaztelekuan eskulanak, 09:00etan.

Anoeta. Produktu jasagarriak bu-
ruzko tailerra, Gaztelekuan,
18:30ean.

Berrobi. Zirku tailerra, haur eta gazteentzat, plazan, 11:00etan.

Elduain. Ipuin kontaketa, kultur etxean, 17:30ean.

Ibarra. Olentzero eta Mari Domingiren puzgarriak, San Bartolome plazan. 11:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara.

Irura. Kafe filosofikoa, eskolako aretoan, 18:00etan.

Lizartza. Jolas goiza frontoian, 10:00etan hasita.

Tolosa. Telazko poltsak atontzeko tailerra, 16:00etan, Topagunean.

Tolosa. Gabonetako haur parkea, Zerkasian, 11:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara.

Ikuskizunak

Amasa-Villabona. *El lobo y el leon* filma, Gurean, 19:00etan.

Tolosa. Sun magoa, Leidorren, 18:00etan.

Tolosa. Gure Zirkua, 19:00etan.

Tolosa. Amaterre talde tolosarra, Topic-en, 20:00etan.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!
11:30. Gaurkoan Tolosaldeko
13:30. Gaurkoan Tolosaldeko
19:00. Elkarriketap
21:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Bixi ibili!

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. E. Bengoe-
txea. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
TOLOSA. Gauekoa. L. Azpiroz. Larra-
mendikalea, 6. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Goizean hodei asko izango dugu eta euri tanta-
ren bat edo beste izango da.

Hala ere, eguerdirako erabat ateri-
geratuko da eta arratsaldean ostar-
te politak irekiko dira. Haizeak hego-
mendebaldeko joko du, goizean za-
kar eta tenperatura maximoak 16-
17 graduan errendituko dira.

Bihar. Eguraldi eguzkitsua eta epela. Goizean behe-lai-
noa sartuko da, baina segi-
tuan jaso eta eguraldi eguzkitsua
izango dugu, nahiz eta, tarteka goi-
hodi batzuk agertu. Hego-haizeak
joko du eta tenperaturak gora egingo
du, 18-20 graduan joz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain
hartzen egunkarian adierazitako esa-
nen eta iritzien erantzukizunik.



Istanbulera
bidaia



Patinete
elektrikoa



Gabonetako
10 saski

Gabonetako ZOZKETA

Ibarrako dendetan

zozketa eguna 2022/01/04



IBARRAKO
UDALA



ibarra



Euskadi, auzokian, bien común